

BARRIAK

ALDERDI POLITIKOEK BE "BAI EUSKARARI!" ALDARRIKATU DABE

ZER au argitaratzen danerako, "Bai Euskarari" kanpainaren barruan antolatutako azken ekitaldia (abenduarien 26an Euskalerriko futbol zelaietan egindako jai erraldoia) igaroa izango da. Ala eta guztiz be, ekimen onen barruan bada guztiz pozgarria izandako barria: Euskalerriko bederatzialderdik Euskararen normalizaziorako konpromiso politikoa izen buruko agiria aurkeztu eta izenpetu izana. Au da, AB, Batzarre, CDN, EA, EAJ, HB, EUE-ICV, IU-EB eta Zutik-eko arduradunak maai baten inguruan batu ziran euskarari bai esateko.

Orrenbestez, alderdiok artutako konpromisoak, era laburrean azalduta, oneexek dira:

- 1.- Euskeraren normalkuntza prozesuak bear dauazan neurri politiko eta instituzinozkoak artzeko konpromisoa.
- 2.- Euskera ofiziala ez dan tokietan estatus ori lortzeko jokabideak artzea.
- 3.- Instituzino guztietan euskeraren aldeko neurriak sail guztietara zabaltzea. Era berean, Euskalerrri osoko instituzino eta erakundeen arteko lankidetzaz bultzatzea euskera sendotu eta berreskuratzeko.
- 4.- Bear diran bitarteko administratibo, juridiko eta, beren beregi, ekonomikoak ezartzea. Era berean, dirulaguntzinoen kopuruak anditzea.
- 5.- Euskalerrriko iru erkideko juridikoetan euskera indartzeko onartutako plangintzak bultzatzea. Gainera, Gizarte Kontseiluak eragile sozialakaz egingo dauan Plan Estrategikoa be bultzatzea.
- 6.- Bakotxak bere alderdi barruko eta kanpoko izkuntz erabilpena normalizatzeko prozesu etenbakoa abian ipintea.
- 7.- Azkenik, kopromiso oneen jarraipena egiteko, Batzorde Berezia eratzea alderdi bakotxeko eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluko ordezkarietaz osotua.

Ikusi leiteken lez, euskarari be eldu jako alkarlanean oinarrituta aurrera egiteko sasoia. Itxaron daigun Bakioko erritarrak zein alkarte eta jarduera ekonomikoetako arduradunak onetaz konturatu eta eurek be euskera bultzatzeko politika abian ipintea.

JOSEBA TERREROS
Bakioko Euskera Teknikaria



Itxas-Alde (Bakio). Euskal Kultura-Tuldea

XIBEROKO MASKARADA-99

Aurtongo Xiberoko Maskaradea Idauze-Mendi errieta-ko gazteek eratu dabe. Or ibiliko dira, bada, gazteok urtarilaren 10etik asita eta aprilaren 18ra arte, domekaro, Xiberoan zear Maskaradea dantzatu eta antzetzten. Egitaraua auxa doxue:

urtarri 1 aren:

10ean Idauzen
17an Mendikotan
24an Garindaiñen
31 an Pagolen

zezeilaren:

1an Altzürükün
14an Altzain
21 an Muskildin
28an Arrokiagan

martiaren:

14an Ligin
20an Maulen
28an Urdiñarben

aprilaren:

4an Barkoxen
11 an Larraiñen
18an Mendin

EUSKALDUN EIZAN

Madrilen jazotakoa goiz zein belu etortekoa zan. Espainagaitik il bear izan dabe euskal semea, euskal erritarra. Euskal umeari gorroto andia, sakona, zaarra deutsoe an.

Aize baltzari eragin eta erabili izan deutsoe, urteetan, gizaldietan, gurata eta jakinaren ganean, maisukiro. "A por ellos"-koek ondo be ondo dakie ori. Euskaldunari deutsoen gorroto istoriko zaarra biztu baino ez dabe egin, bein eta barriz. Eta ori guk be ondo be ondo badakigu. Xenofoboak izan dira beti. Xenofoboak dira orain. Ez dabe inoiz eta ezin dabe, orain be, euskalduna euskaldun ikusi. Lagun urkoaren nortasunagazko "tolerantzia" intolerantea, azken baten. Orregaitik garbitu bear dabe euskalduna. Espainagaitik euskal semea il daben lez. Ori "A por ellos"-koek ondo be ondo badakie, Eta ori berberori da, atan be, batzuk eta beste, emengo eta angoen arteko alde.

Euskalduna, euskal erritarra eizan egin guran ibili dira. Baita lortu egin be. Onetan familiak esandakoakaz bat nator bete-bete. Beioake emetik ildakoaren familiari eta lagunnei besarkadarik beroena.

Iniaki MARTIARTU
1998ko gabonila